**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, 2002ko urtarrilaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Orendaingo udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: 13,2 kV-ko aireko eta lur azpiko linea elektrikoa, zirkuitu bakarrekoa, Orendain TZ-ra doan adarraren aldaketa eta Orendain TZ-ra doan lur azpiko hartune berria izenekoa. 2912

IRAGARKIA, 2002ko urtarrilaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Zumarragako udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: 13,2 kV-ko lur azpiko linea elektrikoa, zirkuitu bakarrekoa, Argixao TZ-ra doan hartunea izenekoa. 2913

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO de 11 de enero de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Línea eléctrica aérea y subterránea a 13,2 kV. s/c., denominada modificación de la derivación al C.T. Orendain y nueva acometida subterránea a C.T. Orendain, en el término municipal de Orendain. 2912

ANUNCIO de 11 de enero de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Línea eléctrica subterránea a 13,2 kV. s/c., denominada acometida al C.T. Argixao, en el término municipal de Zumarraga. 2913

## Pribatuen Iragarkiak

**ARMERIA ESKOLA**

IRAGARKIA, industri maisu titulu bat galdu dela jakinarazten duena. 2914

**JAZKI/9 KOOPERATIBA ELKARTEA**

IRAGARKIA, Jazki/9 kooperatiba elkartearen likidazioari dagokiona. 2915

## Anuncios Particulares

**ARMERIA ESKOLA**

ANUNCIO del extravío del Título de Maestro Industrial. 2914

**JAZKI/9 SOCIEDAD COOPERATIVA**

ANUNCIO relativo a la liquidación de Jazki/9 Sociedad Cooperativa. 2915

# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**Zk-999**

28/2002 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, etxe eta merkataritza erabilerako eta erabilera kolektiboko gas zerbitzuen instalazioak nola ikuskatu eta berrikusi arautzen duena.

Urriaren 26ko 2913/1973 Dekretuaren bidez onartu zen gas erregaien zerbitzu publikoaren Erregelamendu orokorrak eta irailaren 11ko 1085/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen petrolio-gas likidotuak banatzeko jardueraren Erregelamenduak diote erabiltzai-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**N°-999**

DECRETO 28/2002, de 29 de enero, por el que se regula la inspección y revisión de las instalaciones de gas en servicio, destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales.

Tanto el Reglamento general del servicio público de gases combustibles, aprobado por Decreto 2913/1973, de 26 de octubre, como el Reglamento de la actividad de distribución de gases licuados del petróleo, aprobado por Real Decreto 1085/1992, de 11 de septiembre,

leak behartuta daudela haien instalazioak behar bezala mantentzen. Horrez gain, instalazioak aldizka berrikustea ere erabiltzaileen berezko egin beharra dela diote.

Bestalde, etxe eta merkataritza erabilerako eta erabilera kolektiboko lokaletan dauden gas instalazioei buruzko Erregelamendua onartu zuen 1853/1993 Errege Dekretuaren 16. artikuluak zerbitzuan dabiltzan gas instalazioen akatsen sailkapena xedatzen du. Gainera, zerbitzuan dabiltzan instalazioak begiratzeko aplikatu behar diren irizpide teknikoak MI-IRG 13 Jarraibide Teknikoan daude xedatuta.

Eraikinetako instalazio termikoei buruzko Erregelamendua onartu zuen uztailaren 31ko 1751/1998 Errege Dekretuak ere antzeko zer edo zer dio; izan ere, Errege Dekretu horren arabera, erregelamendu honen menpe dauden instalazioen titular edo erabiltzaileek dute instalazioen funtzionamenduaren eta mantentze-lanen ardura.

Praktikak, ordea, erakutsi du arazoak egoten direla instalazioak kontrolatzeko orduan; izan ere, gai honen inguruan arau ugari egoteaz gain, behar bezala zehaztu gabe dago zein den instalazioa ikuskatzearen eta instalazioa berrikustearen arteko desberdintasuna, eta zein den bakoitzaren helmena, prozedura teknikoa eta edukia.

Instalazio horiei, segurtasuna dela eta, hainbat baldintza tekniko betetzeko eskatzen zaie. Baldintza horiek lehen aipatu ditugun xedapenetan daude jasota, eta dekretu honek ez du horiek aldatzeko asmorik, beste hauek lortzea baizik:

– Indarrean dagoen araudiak mota honetako instalazioen titularren eta erabiltzaileen ardurapen auzten dituen betebeharrak errazago bete daitezen laguntzea.

– Egin behar den kontrolaren helmena, prozedura teknikoa eta edukia zehaztea eta arautzea.

– Mota honetako instalazioak erabili eta mantentzelanak egiten parte hartzen duten agenteen erantzukizunen erregimena argi eta garbi zehaztea, eta berrikuste eta kontrol prozesuetan agenteek dituzten betebeharrak mugatzea.

– Titularrek edo erabiltzaileek haien betebeharrak bete ezean, zelan jokatu zehaztea.

Helburu horiek ezinbestean betetzekoak dira, batez ere kontuan hartzen badugu, alde batetik, gasa eta, bereziki, gas kanalizatua, etengabe ari dela ezartzen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta beste aldetik, gasa hartzeko instalazioak ere ugaltzen ari direla.

Guzti horiez gain, gas kanalizatuaren instalazioak ikuskatu eta berrikusi egin behar dira, eta bi zeregin edo figura horiek zalantza handiak ekarri ohi dizkietenez erabiltzaileei, sarritan zalantza horiek direla eta, ez

establecen como obligación de los usuarios mantener en perfecto estado de conservación sus instalaciones, determinándose como una de sus obligaciones directas la de realizar revisiones de su instalación con carácter periódico.

Por otra parte, el Reglamento de instalaciones de gas en locales destinados a usos domésticos, colectivos y comerciales, aprobado por Real Decreto 1853/1993, determina en su artículo 16, la clasificación de los defectos de las instalaciones de gas en servicio, y en la Instrucción Técnica MI-IRG 13 se establecen los criterios técnicos de aplicación para las comprobaciones de las instalaciones en servicio.

En parecidos términos se expresa el Real Decreto 1751/1998, de 31 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de instalaciones térmicas en edificios, según el cual los titulares o usuarios de las instalaciones sujetas a este reglamento son responsables del funcionamiento y mantenimiento de las mismas.

La práctica ha demostrado que se plantean problemas a la hora de efectuar el control de las instalaciones, máxime si tenemos en cuenta la multiplicidad de normas que inciden en la materia, junto con la indeterminación de aspectos tan fundamentales como, la distinción entre inspección y revisión de la instalación y el alcance, procedimiento técnico y contenido de cada una de ellas.

Sin modificar las condiciones técnicas que, por razones de seguridad, son exigibles a dichas instalaciones, y que están contenidas en las disposiciones relacionadas con anterioridad, el presente Decreto persigue, entre otros, los siguientes objetivos:

– Facilitar el cumplimiento de las obligaciones que la reglamentación técnica vigente atribuye a los titulares y usuarios de este tipo de instalaciones.

– Definir y regular el alcance, procedimiento técnico y contenido del control que se debe efectuar.

– Establecer de forma clara y precisa el régimen de responsabilidades de los agentes intervinientes en el uso y mantenimiento de este tipo de instalaciones, delimitando sus obligaciones en los procesos de revisión y control.

– Determinar las actuaciones a realizar en el caso de incumplimiento de las obligaciones de los titulares o usuarios.

El cumplimiento de los referidos objetivos se plantea como una necesidad ineludible, máxime si tenemos en cuenta la progresiva implantación del gas en esta Comunidad Autónoma, sobre todo en el caso del gas canalizado, con el consiguiente aumento de las instalaciones receptoras de gas.

Por otra parte, la existencia de la doble figura de la inspección y revisión en instalaciones de gas canalizado, origina autenticas situaciones de confusión entre los usuarios, lo que da lugar, en muchos casos, a incumpli-

da behar bezala betetzen instalazioen mantentze-lanak egiteko betebeharra.

Bestalde, begi bistakoa da instalazioen gaineko kontrol falta eta instalazio horiek erabiltzean istripuak gertatzeko arriskua bata bestearen ondorio direla. Beraz, erabiltzaileari argi adierazi behar zaio kontrolak nola egin eta erraztu egin behar zaio kontrolak egiteko modua.

Gainera, gure administrazioak antolatu duen segurtasun politikaren oinarri izango da gasa banatu edo kanalizatzen duten enpresek mota honetako instalazioetan egin beharko duten kontrol sakona; eta horretarako ezarri dira, hain zuzen ere, agente horien prozedurak eta jarduera-erregimena.

Adierazitako guztia nahikoa arrazoi da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan gas instalazioak erabili eta mantentze-lanak egiteko eta aldizkako kontrola egiteko erregimen juridikoa arautzen duen arau-testua egiteko.

Ondorioz, Aholku Batzorde Juridikoari entzunda, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN KOMUNAK

*1. artikulua.*– Helburua eta aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honen helburua da etxe eta merkataritza erabilerako eta erabilera kolektiboko gasa hartzeko instalazioak erabili edo zerbitzuan hasi ostean egin beharreko aldizkako kontrolak arautzea.

2.– Dekretu honetako xedapenak era guztietako gas instalazioei aplikatuko zaizkie. Beraz, gas naturaleko nahiz petrolio-gas likidotuko instalazioei aplikatuko zaizkie, eta berdin dio gasa hornitzeko edo banatzeko era zein den, kanalizatua ala enbasatua.

3.– Dekretu honetan aurreikusitako kontrol sistema honako instalazio hauei aplikatuko zaie: instalazio hartzaileei eta gasa kontsumitzen duten aparailuei, hartuneko giltzaren eta horien artean dauden gas-bide eta akzesorioak barne, hartuneko giltza bera izan ezik.

*2. artikulua.*– Instalazioen kontrola: ikuskatzea eta berrikustea.

1.– Dekretu honen ezarpen eremuan dauden instalazioak, instalazio mota kontuan hartuta, aldizka ikuskatu edo berrikusi beharko dira.

2.– Instalazioen aldizkako ikuskapenak egitea gasa banatu eta merkaturatzen duen enpresaren baten bete beharra ez bada, halakoetan ezinbestean egin beharko da instalazioaren berrikusketa.

mientos de la obligación de mantenimiento de las instalaciones.

Resulta evidente la directa relación de causalidad existente entre la falta de control de las instalaciones y el aumento del índice de riesgo de accidente en su utilización, razón por la cual, se debe clarificar y facilitar al usuario la realización de los correspondientes controles.

Por otra parte, desde esta Administración se ha planteado una política de seguridad basada en un control exhaustivo de este tipo de instalaciones por parte de las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas, a cuyos efectos se establecen los procedimientos y régimen de actuación de los referidos agentes.

Lo anteriormente expuesto justifica el que se proceda a la elaboración de un texto normativo que regule para el ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma, el régimen jurídico aplicable al control periódico, uso y mantenimiento de las instalaciones de gas.

En su virtud, de acuerdo con el Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 29 de enero de 2002,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– El presente Decreto tiene por objeto regular los controles periódicos, posteriores a la puesta en servicio o utilización de instalaciones receptoras de gas para usos domésticos, colectivos o comerciales.

2.– Las disposiciones contenidas en el presente Decreto se aplicarán a todo tipo de instalaciones de gas, bien sean de gas natural o gas licuado de petróleo y cualquiera que sea la forma de suministro o distribución (canalizado o envasado).

3.– El sistema de control previsto en este Decreto se aplican tanto a las instalaciones receptoras, como a los aparatos consumidores de gas, debiéndose considerar incluidos todo tipo de conducciones y accesorios, comprendidos desde la llave de acometida, excluida ésta.

*Artículo 2.*– Control de instalaciones: Inspección y Revisión.

1.– Todas las instalaciones incluidas en el ámbito de aplicación del presente Decreto deberán ser objeto, según el tipo de instalación, de una inspección o de una revisión periódica.

2.– Las revisiones se realizarán, únicamente, en aquellas instalaciones en las que no se haya atribuido a las empresas distribuidoras o comercializadoras la obligación de realizar inspecciones periódicas.

*3. artikulua.*– Titularren edo erabiltzaileen erantzukizuna.

1.– Hornidura-kontratuen titularrek edo, halakorik egon ezik, instalazioen erabiltzaileek izango dute Dekretu honetan aurreikusitako aldizkako kontrolak egiteko erantzukizuna, bai eta instalazioak erabiltzeko moduan mantentzeko erantzukizuna ere.

2.– Ondorio horietarako, gasa banatu eta merkaturatzen duten enpresekin elkarlanean arituko dira ikuskapenak egin ahal izateko, edo bestela, instalazioa egin duen enpresarekin kontratu bat egingo dute berrikusketak enpresak egin ditzan. Horrez gain, enpresari instalazioetan sartzen uzteaz gain, instalazioetan ikusten diren akatsak konpontzeko egin beharreko guztiak egingo dituzte.

Gainera, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresek edo aparailuen fabrikatzaileek ematen dizkieten segurtasunari buruzko gomendioak aintzat hartu beharko dituzte.

*4. artikulua.*– Ikuskapenaren edo berrikusketaren helmena.

1.– Oro har ikuskapenak eta berrikusketak egiten direnean, erregelamendua betetzen den ala ez ikusi beharko da, beti ere aplikagarria den araudian aurreikusita dauden irizpideak kontuan hartuta; eta horretarako, nola funtzionatzen duen eta zein egoeratan dagoen ikusteko egin beharreko proba eta egiaztapen guztiak egingo dira.

2.– Ikuskapena edo berrikusketa instalazio indibidualari eta instalazio komunari, halakorik egonez gero, egingo zaizkio.

3.– Proba horiek egiteko ekipamendua behar bezala kalibratuta eta erabiltzeko moduan egon beharko da erabili behar den bakoitzean.

4.– Ikuskatu edo berrikusi beharreko atala kontuan hartuz gero, honakoa izango da bakoitzaren helmena:

4.1.– Instalazio indibidualak.

a) Gas-zirkuitua.

Instalazioaren egoera ikusteko azterketa bat egingo da, eta horrez gain, egiaztatuko da ea gas-zirkuituaren estankotasuna zerbitzuko presioarekiko egokia den, hasi abonatuaren giltzatik eta aparailu guztiek funtzionatzeko behar duten ixte-elementuetara arte. Azterketa hau egiteko, doitasun egokiko manometroak edo bentometroak, kontagailuaren metrika edo zeregin honetarako egokia den beste edozein tresna erabili ahal izango dira. Bestalde, trazatu guztira heltzea erraza bada, gas detektorea erabili ahal izango da, eta aurreko guztiak ezin badira erabili, gas-ihesa detektatzeko sistemaren bat erabiliko da.

Petrolio-gas likidotuko botilarik badago biltegiratuta, eta 35 kg-ko edo gutxiagoko edukierako bada,

*Artículo 3.*– Responsabilidades de los titulares o usuarios.

1.– Los titulares de los contratos de suministro, o en su defecto los usuarios de las instalaciones, serán responsables de la realización de los controles periódicos previstos en el presente Decreto, así como del mantenimiento de sus instalaciones en condiciones de uso adecuado.

2.– A estos efectos, colaborarán con las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas para la realización de las correspondientes inspecciones y, en su caso, contrataran con las empresas instaladoras la realización de las revisiones. Así mismo, facilitarán el acceso a sus instalaciones y realizaran las actuaciones necesarias para la subsanación de las deficiencias detectadas.

Además, deberán atender a las recomendaciones que, en orden a la seguridad, les sean comunicadas por la empresa distribuidora o comercializadora de gas o el fabricante de los aparatos.

*Artículo 4.*– Alcance de la Inspección o Revisión.

1.– Con carácter general, tanto en la inspección como en la revisión, se deberá comprobar el cumplimiento reglamentario, de acuerdo con los criterios previstos en la normativa que resulte de aplicación, para lo cual se realizarán las pruebas y verificaciones necesarias para comprobar el estado de funcionamiento y conservación.

2.– La revisión o inspección comprenderá, tanto la instalación individual como, en su caso, la instalación común.

3.– El equipamiento necesario para la realización de las citadas pruebas deberá estar debidamente calibrado, cuando sea necesario, y en condiciones adecuadas de utilización.

4.– Dependiendo de la parte afectada, el alcance será el que se indica a continuación.

4.1.– Instalaciones individuales.

a) El circuito de gas.

Se realizará un examen del estado de la instalación comprobando además la estanqueidad del circuito de gas a la presión de servicio, desde la llave de abonado hasta los elementos de obturación para el funcionamiento de todos los aparatos. Este examen se realizará mediante manómetro o ventómetro de precisión adecuada, métrica del contador u otro medio apropiado para éste propósito, o si todo el trazado es accesible, mediante detector de gas o sistema de detección de fugas en el supuesto de no poder utilizar los sistemas anteriores.

En caso de existir almacenamientos de botellas con capacidad unitaria inferior o igual a 35 kg de gases li-

egiztatu egin beharko da ia erregelamenduzko baldintzak betetzen dituzten.

b) Aparailuen funtzionamenduaren gaineko segurtasuna.

Instalatutako aparailu guztien erregailuen errekuntza eta funtzionamendu egonkorra egiaztatu beharko dira, eta erabilera posizio guztiak hartuko dira kontuan. Horrez gain, garra itzaltzeko sistemaren segurtasuna ere egiztatu beharko da, era horretako gailuak behar dituzten aparailuetan. Aparailuetara doan elikadura-presioa egokia dela egiaztatu beharko da, baina egiaztapena egiteko, elementu finkoak desmuntatu beharrik ez badago.

Hustuketa bideratua duten zirkuitu irekiko aparailuak lokal itxietan badaude, edo garra ezkutuan duten aparailuak badira, (bitrozeramika-sukaldeak, frijigailuak eta abar) CO-aren isurketa neurtu beharko da, bai eta lokaleko giroan dagoen CO-aren kontzentrazioa ere. Neurketa egiteko, ateak eta leihoak itxita egon beharko dira eta aparailu guztiak martxan gehienezko potentzian. Detektore egokia erabili beharko da, eta detektorea aparailutik metro batera eta lurretik 1,80 metrora egon beharko da gutxi gora-behera, eta aparailua martxan hasten denetik 10 minutura egin beharko da neurketa.

Zirkuitu irekiko galdarak dauden lokalean ke-kanpairik egonez gero, egiaztatu egin beharko da ea segurtasuneko katigamendua erabiltzeko moduan dagoen eta ea behar bezala dabilen.

c) Lokalaren aireberritze sistema.

Lokalean instalatuta dauden aparailuak ikusita, aireberritzea egokia den ala ez egiaztatu beharko da.

d) Errekuntzako produktuentzako hustuketa sistema.

Hustuketa sistemak beharrezkoak badira, egiaztatu beharko da ea hustuketa sistemarik dagoen eta ea eraginkorrak diren, eta ke-kanpaiak duen eragina bereziki egiaztatu beharko da. Bestalde, erregelamenduzko aireberritzea baino ez bada erabiltzen, hustuketa bideratua duten aparailuak martxan dabiltzan bitartean, ezin izango da errekuntzako produkturik atzera bota.

e) Lokala.

Aparailuak dauden lokalak eta konduktuek zeharkatzen dituzten lokalak egokiak diren ala ez egiaztatu beharko da.

4.2.– Instalazio komunak.

a) Gas-zirkuitua.

Instalazioaren egoera ikusteko azterketa bat egin beharko da eta, horrez gain, egiaztatuko da ea gas-zirkuituaren estankotasuna egokia den, instalazio indibidualak hasten diren lekura arte. Horretarako, gas-detektorea, doitasun egokiko manometroak edo bentometroak, kontagailuaren metrika edo zeregin honetarako egokia den beste edozein tresna erabili ahal izango dira.

cuados del petróleo, se comprobarán sus condiciones reglamentarias.

b) La seguridad del funcionamiento de los aparatos.

Se procederá a la comprobación de la combustión y del funcionamiento estable de los quemadores de todos los aparatos instalados, en sus diferentes posiciones de utilización, así como, la seguridad por extinción de llama, en aquellos aparatos que deban disponer de este dispositivo. Deberá comprobarse que la presión de alimentación a los aparatos es adecuada, cuando esta comprobación no requiera el desmontaje de elementos fijos.

En el caso de aparatos de circuito abierto con evacuación conducida instalados en locales cerrados o de otros aparatos de llama oculta (cocinas vitrocerámicas, freidoras, etc.) se realizará una medición de las emisiones de CO, así como la medición de la concentración de CO-ambiente en el local. Esta comprobación se realizará con las puertas y ventanas cerradas y con todos los aparatos a la máxima potencia, mediante detector adecuado y situado aproximadamente a 1 m del aparato y 1,80 m de altura y transcurridos al menos 10 minutos de funcionamiento.

Cuando en el mismo local donde se encuentran instaladas las calderas de circuito abierto existan campanas extractoras, se comprobará la disponibilidad y correcto funcionamiento del enclavamiento de seguridad.

c) El sistema de ventilación del local.

Se comprobará la idoneidad de la ventilación en función de los aparatos instalados.

d) El sistema de evacuación de los productos de la combustión.

Se comprobará la existencia y eficacia de los sistemas de evacuación cuando éstos sean necesarios y especialmente la influencia de la campana extractora, si existe. No deberán producirse revocos de los productos de la combustión durante el funcionamiento de los aparatos con evacuación conducida, cuando se utilice solamente la ventilación reglamentaria.

e) El local.

Se comprobará la idoneidad de los locales que contienen los aparatos y los que atraviesan las conducciones.

4.2.– Instalaciones comunes.

a) El circuito de gas.

Se realizará un examen del estado de la instalación comprobando además la estanqueidad del circuito de gas hasta el comienzo de las instalaciones individuales, mediante detector de gas, manómetro o ventómetro de precisión adecuada, métrica del contador u otro medio apropiado para éste propósito.

b) Erregulazioa eta kokapena.

Lokala eraikin barruan egonez gero, lokalaren erregulazioa eta aireberritze baldintzak egiaztatu beharko dira, bai eta erregulazio-presioa eta haren segurtasunak ere.

c) Kontagailuak zentralizatzeko armairua edo esparrua.

Egiaztatu beharko da kontagailuak zentralizatzeko armairua edo esparrua egokia dela, hau da, erregelamenduaren araberakoa dela.

*5. artikulua.*– Aparailuen mantentze-lana.

Aurreko artikuluan aurreikusitako kontrolaz gain, bi urtean behin berrikusi egin beharko dira 15 kW baino potentzia gehiago duten kontsumoko aparailuak, hartara, segurtasun betekizunak mantendu eta funtzionamendu baldintzak hobetzeko, bai eta isuri atmosferikoak gutxitzeko ere. Berrikusketa hau aparailuaren Asistentzia Teknikoko Zerbitzuak (SAT) edo aparailuaren fabrikatzaileak behar bezala baimendutako entitateren batek egin beharko du, eta fabrikatzaileak baimena eman duela egiaztatzen duen agiria luzatu beharko du.

*6. artikulua.*– Akatsak ebaluatzea.

1.– Instalazioak ikusi ostean, ikuskatzaileak esan beharko du zeintzuk akats ikusi dituen eta akatsak ebaluatu beharko ditu. Horrez gain, ikuskatzaileak adierazi beharko dio instalazioaren titularrari edo erabiltzaileari zein epe duen gasa banatu eta merkaturatzen duen enpresaren aurrean akatsa konpondu duela egiaztatzeko.

2.– Akatsak ebaluatzean, akatsok ekar dezaketen arriskua hartuko da kontuan, eta indarrean dagoen araudi teknikoetan adierazitako irizpideak erabiliko dira.

3.– Hala ere, beharrezkotzat jotzen bada, behin-behineko segurtasun neurriak hartuko dira harik eta akatsak konpondu arte.

4.– Dekretu garatzen duten xedapenetan zehaztuko dira akats bakoitzaren sailkapena eta akatsa konpondu dela egiaztatzeko epea.

*7. artikulua.*– Instalazioen ikuskatze eta berrikusketa akta.

Instalazioak ikuskatu eta berrikusi ostean, Dekretu hau garatzen duten xedapenetan zehazten den agiri-ereduetan adierazi beharko dira emaitzak. Ikuskapena edo berrikusketa egin eta gero, akta erabiltzaileari emango zaio.

*8. artikulua.*– Akatsak zuzentzea.

1.– Ikusten diren akatsak ahalik eta arinen konpondu beharko dira, eta derrigorrezkoa izango da akatsak konpondu direla egiaztatzea gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresaren aurrean. Gainera, kontroleko ak-

b) La regulación y su ubicación.

Se comprobará la regulación y las condiciones de ventilación del local en caso de estar situado en el interior del edificio así como la presión de regulación y sus seguridades.

c) Armario o recinto de centralización de contadores.

Se comprobará la idoneidad del armario o recinto para el fin previsto, de acuerdo con la reglamentación.

*Artículo 5.*– Mantenimiento de Aparatos.

Además del control previsto en el artículo anterior, los aparatos de consumo con potencias superiores a 15 kW, deberán ser revisados cada dos años, con objeto de que se mantengan los requisitos de seguridad y de mejorar sus condiciones de funcionamiento, así como, para limitar las emisiones a la atmósfera. Esta revisión deberá realizarse por el Servicio de Asistencia Técnica del aparato (SAT) o por otra entidad debidamente autorizada por el fabricante del mismo, que deberá emitir el correspondiente documento acreditativo.

*Artículo 6.*– Evaluación de las deficiencias.

1.– Como consecuencia de las comprobaciones realizadas, el inspector pondrá de manifiesto y evaluará las deficiencias observadas en las instalaciones, indicando al titular o usuario de la instalación, el plazo para acreditar su subsanación ante la empresa distribuidora o comercializadora.

2.– La evaluación de las deficiencias deberá efectuarse en función del riesgo que presenten, teniendo en cuenta los criterios establecidos en la reglamentación técnica vigente.

3.– En cualquier caso, deberán adoptarse, cuando sea necesario, las medidas de seguridad provisionales que correspondan, mientras no se hayan corregido las deficiencias.

4.– En las disposiciones de desarrollo del presente Decreto, se determinarán la calificación de cada una de las deficiencias y el plazo de acreditación de la subsanación.

*Artículo 7.*– Acta de revisión o inspección de las instalaciones.

El resultado de las comprobaciones deberá documentarse en los formatos que se indiquen en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto. Esta acta se entregará al usuario en el momento de la inspección o revisión.

*Artículo 8.*– Corrección de las deficiencias.

1.– Las deficiencias que se detecten deberán ser corregidas con la mayor brevedad posible, y en cualquier caso, deberá acreditarse su corrección ante la empresa distribuidora o comercializadora de gas, antes del trans-

tan adierazitako epeetan egiaztatu beharko dira, eta akatsa konpondu dela egiaztatzeko, konponketa-egiaztagiria aurkeztu beharko zaio enpresari.

2.– Akatsa aparailu batean ikusi bada, baimendutako enpresa instalatzaile batek edo asistentzia teknikoko zerbitzuak konpondu beharko du, eta akatsaren konponketa-egiaztagiria luzatu beharko du. Salbuespen moduan, erabiltzaileak aukera izango du berak egiaztatzeko honako akatsak hauek konpondu dituela: elastomerozko tutu malguak aldatzea, aire-berritze arazoak konpontzea edo ke-kanpaiaren eta galdararen arteko katigamendua instalatzea.

*9. artikulua.*– Instalazioak ikuskatu eta berrikusten dituen pertsonala.

Gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresako pertsonalak eta enpresa instalatzaileko pertsonalak gas instalatzailearen lanbide karneta beharko du instalazioak ikuskatu edo berrikusi ahal izateko. Bestalde, lanbide karnetaren kategoria instalazio motaren araberakoa izan beharko da.

*10. artikulua.*– Kontrol prozedura.

Gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresek kontrol prozeduraren bat izan beharko dute, egiten diren ikuskapen edo berrikusketen eta akats-konponketen jarraipena egiteko. Bestalde, industria gaietan eskumena duen organoak onartu beharko du prozedura hori, eta prozedura onartzeko, Dekretu hau garatzen duten xedapenetan ezartzen dena hartu beharko du kontuan.

*11. artikulua.*– Ordainketa-poliza edo hornidura-kontratua.

1.– Hidrokarburoen arloari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 79. artikuluan xedatutakoak dioenez, ordainketa-polizan edo hornidura-kontratuan argi eta garbi jaso beharko dira honako hauek: batetik, instalazioaren titularrek edo erabiltzaileek instalazioa behar bezala mantentzeko betebeharra dutela, eta bestetik, instalazioa ikuskatu eta berrikusteko betebeharra dutela, eta Dekretu honetan aurreikusten diren epeetan egin beharko dutela.

2.– Horrez gain, Dekretu honetan ezarritakoa kontuan hartuta, poliza berrietan gogorarazi beharko da zein den gas hornidura eteteko erregimena, eta erregimen hori aplikatuko dela baldin eta instalazioren batean ikuskapenik edo berrikusketarik egiten ez bada erabiltzailearen edo titularraren erruagatik.

*12. artikulua.*– Hornidura etetea.

1.– Mota honetako instalazioei aplikatu ahal zaien araudian jasota dago gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresek noiz eten dezaketen gas hornidura. Hala ere, kasu horietaz gain, honako hauek gertatuz gero ere, eten egin ahal izango dute hornidura:

a) Kontroletan akats larriak ikusten badira.

curso de los plazos indicados en el acta de control, mediante la presentación del certificado de corrección.

2.– La corrección de las deficiencias deberá ser realizada por una empresa instaladora autorizada o por el servicio de asistencia técnica, cuando la deficiencia afecte a un aparato, debiendo emitirse el correspondiente certificado de corrección. Excepcionalmente, los cambios de flexible de elastómero, la subsanación de problemas de ventilación o la instalación del enclavamiento entre la campana extractora y la caldera, podrán ser acreditados por el propio usuario.

*Artículo 9.*– Personal que realice la inspección o revisión.

Tanto el personal de la empresa distribuidora o comercializadora, como el de la empresa instaladora, que realice la inspección o revisión, deberá disponer de carné profesional de instalador de gas, en la categoría correspondiente, en función del tipo de instalación.

*Artículo 10.*– Procedimiento de control.

Las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas deberán disponer de un procedimiento de control que contemple al menos, el seguimiento, tanto de la inspección o revisión realizada como de la subsanación de las deficiencias detectadas. Este procedimiento deberá ser aprobado por el órgano competente en materia de industria, de acuerdo con lo que se establezca en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

*Artículo 11.*– Póliza de abono o contrato de suministro.

1.– En función de lo establecido en el artículo 79 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del sector de hidrocarburos, en la póliza de abono o contrato de suministro, se deberá recoger expresamente, además de la obligación genérica de adecuado mantenimiento, la obligación de los titulares o usuarios de las instalaciones de realizar la correspondiente inspección o revisión dentro de los plazos previstos en el presente Decreto.

2.– Así mismo, en las nuevas pólizas se recordará, en función de lo establecido en el presente Decreto, el régimen de suspensión del suministro, en el supuesto de que las referidas inspecciones o revisiones no se efectúen por causas imputables al titular o usuario de la instalación.

*Artículo 12.*– Suspensión del suministro.

1.– Las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas, además de en los supuestos contemplados en la reglamentación aplicable a este tipo de instalaciones, podrán suspender el suministro, en los siguientes supuestos:

a) Cuando detecten deficiencias graves en los controles.

b) Titularrak ez badu betetzen instalazioa ikuskatu edo berrikusteko eginbeharra, hau da, ez badu Dekretu honetan ezarritakoa betetzen.

2.– Hornidura etenda egongo da akatsak konpondu arte edo ikuskapena edo berrikusketa egin dela egiaztatzen den arte.

3.– Dekretu hau garatzen duten xedapenetan ezartzen dena kontuan hartuta, gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresek industria gaietan eskumena duen lurralde organoari jakinarazi beharko dizkiote hornidura eteteko hartu dituzten erabakiak, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zergatik hartu duten erabaki hori eta zein prozedura erabili duten.

4.– Hornidura ezin bada eten, eta horren errua instalazioaren titularrak edo erabiltzaileak badu, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak horren berri eman beharko dio industria gaietan eskumena duen lurralde organoari, eta egindako izapideak adierazi beharko dizkio, bai eta zergatik ezin izan den hornidura eten ere.

*13. artikulua.*– Erreklamazioak.

Erabiltzaileak ez badaude ados enpresa instalatzaileek edo gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresek burututako jarduerekin, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte industria gaietan eskumena duen lurralde organoan.

II. KAPITULUA
GAN KANALIZATUKO INSTALAZIOAK.
IKUSKATZEA.

*14. artikulua.*– Gas kanalizatuko instalazioak ikuskatzea.

Hidrokarburoen arloari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 83. artikuluak xedatzen duenez, gasa banatu eta merkaturatzen duten enpresek ikuskatu eta berrikusiko dituzte kanalizazio bidezko banaketa sareetatik elikatzen diren instalazio hartzaileak, baldin eta enpresok gas horniketako kontratua egin badute titularrarekin edo erabiltzailearekin, eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera arituko dira.

*15. artikulua.*– Gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresa bi egotea.

1.– Gerta daiteke kontratu bat baino gehiago egotea, eta, horregatik, gas kanalizatua banatu edo merkaturatzen duten enpresak bik hornitzea instalazio bera. Horrelakoetan, nahikoa da enpresa bakar batek ikuskatzea instalazioa.

2.– Ikuskapena egiteko epea bukatzen den unean instalazioa hornitzen ari den enpresak berak ikuskatuko du instalazioa.

*16. artikulua.*– Ikuskapena azpikontratatzea.

1.– Ikuskapena gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresek egingo dute, eta zuzenean egin dezakete,

b) Cuando el titular no haya cumplido con su obligación de realizar la inspección o revisión de su instalación, en los términos previstos en el presente Decreto.

2.– La referida suspensión durará hasta la subsanación de las deficiencias o hasta la acreditación de la realización de la correspondiente revisión o inspección.

3.– De acuerdo con lo que se establezca en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto, las empresas distribuidoras o comercializadoras deberán comunicar, al órgano territorial competente en materia de industria, las suspensiones de suministro que hayan acordado, con expresa mención de las causas y procedimiento seguido.

4.– En el supuesto de que por cualquier causa imputable al titular o usuario de la instalación, la referida suspensión del suministro no se pueda llevar a efecto, la empresa distribuidora o comercializadora, lo comunicara al mismo órgano territorial, indicando los trámites efectuados y la causa por la cual no se ha podido suspender el suministro.

*Artículo 13.*– Reclamaciones.

Las discrepancias de los usuarios con las actuaciones de las empresas instaladoras, distribuidoras o comercializadoras podrán ser objeto de la correspondiente reclamación ante el órgano territorial competente en materia de industria.

CAPÍTULO II
INSTALACIONES DE GAS CANALIZADO.
INSPECCIÓN.

*Artículo 14.*– Inspección de instalaciones de gas canalizado.

Las inspecciones de las instalaciones receptoras alimentadas desde redes de distribución por canalización, de acuerdo con el artículo 83 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del sector de hidrocarburos, deberán ser realizadas por las empresas distribuidoras o comercializadoras que tengan contratado el suministro de gas con el titular o usuario, en los términos establecidos en el presente Decreto.

*Artículo 15.*– Concurrencia de varias empresas distribuidoras o comercializadoras.

1.– En el supuesto de que una instalación, en virtud de la existencia de varios contratos, sea objeto de suministro por diversas empresas distribuidoras o comercializadoras de gas canalizado, solo será necesario que una de ellas realice la inspección.

2.– La inspección se deberá realizar, por la empresa distribuidora o comercializadora, que este suministrando en el momento de vencimiento del plazo establecido para la realización de la misma.

*Artículo 16.*– Subcontratación de la inspección.

1.– La inspección la realizarán las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas, bien directamen-

hau da, haien langileen bitartez, edo enpresa instalatzaile baten bitartez edo arauzko arlo honetan behar bezala baimendutako kontrol erakunde baten bitartez.

2.– Ondorio horietarako, enpresa instalatzaile batek edo kontrol erakunde batek egindako ikuskapenak gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak egindako ikuskapenak duen balio bera izango du, eta azken hori izango da erantzule bakarra bai erabiltzaile edo titularraren aurrean bai administrazioaren aurrean.

*17. artikulua.*– Ikuskapenaren aldizkakotasuna.

1.– Hornidura-kontratua duten guztiek egin beharko dute 4 urtean behin ikuskapena. Kontrola epealdi hori bukatzen den urte naturalaren barruan egin beharko da.

2.– Gas kanalizatua banatu edo merkaturatzen duen enpresak aurretiaz jakinarazi beharko dio instalazioaren titularrari edo erabiltzaileari noiz egingo den ikuskapena.

*18. artikulua.*– Hornidura eteteko prozedura, ikuskapena ez egiteagatik.

1.– Ikuskapena ezin izan bada egin gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak esandako egunean, eta berdin dio zergatik ezin izan den egin, enpresak eskatu beharko dio titularrari enpresarekin harremanetan jartzeko, eta horretarako hilabeteko epea emango dio. Horrela, bien artean adostuko dute kontrola zein astegun eta zein lanordutan egingo duten.

2.– Titularra ez bada enpresarekin harremanetan jartzen, instalazioaren titularrak bere gain hartu beharko ditu kontrola egiteko jarduera guztiak, eta ikuskapena egiteko gestio guztien ardura hartu beharko du, gehienez ere hiru hilabeteko epean ikuskapena egin dezan. Aurreko paragrafoan adierazitako epea bukatu eta gero hasiko da 3 hilabeteko epea.

3.– Hiru hilabeteko epea igarotzen bada, eta ikuskapenik ez bada egin, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak eten egin beharko du hornidura, eta Dekretu honetako 12. artikuluan adierazitako moduan etengo du hornidura.

4.– Hornidura eten baino lehen edo eteten den unean bertan gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak hornidura eteteko erabakiaren berri eman behako dio titularrari edo erabiltzaileari.

## III. KAPITULUA
## GAS ENBASATUKO INSTALAZIOAK. BERRIKUSTEA.

*19. artikulua.*– Gas enbasatuko instalazioak berrikustea.

Gasaren enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte gas enbasatuko instalazioen (botilak eta banaketa gabeko deposituak) aldizkako berrikusketak.

te, a través de su propio personal, bien utilizando los servicios de una empresa instaladora o de un organismo de control debidamente autorizado en este campo reglamentario.

2.– A estos efectos, la inspección efectuada por una empresa instaladora o por un organismo de control, tendrá la consideración de inspección de la empresa distribuidora o comercializadora, siendo esta, la única responsable, tanto frente al titular o usuario como frente a la Administración.

*Artículo 17.*– Periodicidad de la inspección.

1.– La inspección se realizará por todos los titulares de contratos de suministro, cada 4 años. El control deberá realizarse dentro del año natural de vencimiento de este periodo.

2.– La empresa distribuidora o comercializadora de gas canalizado deberá comunicar al titular o usuario de la instalación, con antelación suficiente, la fecha prevista para la realización de la inspección.

*Artículo 18.*– Procedimiento de suspensión del suministro por no realización de la inspección.

1.– En el supuesto de que, cualquiera que sea la causa, la inspección no pueda realizarse en la fecha programada por la empresa distribuidora o comercializadora de gas, esta requerirá al titular para que, en el plazo de un mes, se ponga en contacto con la misma, a los efectos de señalar, de común acuerdo y en horario laborable, el día y hora para la realización del control.

2.– Si el referido requerimiento no fuera atendido, todas las actuaciones necesarias para la realización de los controles recaerán en el titular de la instalación, que deberá efectuar todas las gestiones precisas para que la inspección se realice en el plazo máximo de 3 meses, contados desde el transcurso del plazo señalado en el apartado anterior.

3.– Transcurrido el plazo referido en el punto anterior, sin que se haya realizado la inspección, la empresa distribuidora o comercializadora de gas procederá a la suspensión del suministro en los términos previstos en el artículo 12 del presente Decreto.

4.– Con carácter previo o en el mismo acto de suspensión de suministro, la empresa distribuidora o comercializadora deberá notificar al titular o usuario la decisión de cortar el suministro.

## CAPÍTULO III
## INSTALACIONES DE GAS ENVASADO. REVISIÓN

*Artículo 19.*– Revisión de instalaciones de gas envasado.

La revisión periódica, en instalaciones de gas envasado (botellas y depósitos sin distribución) se realizará por las empresas instaladoras de gas, debidamente autorizadas.

*20. artikulua.*– Berrikusketaren aldizkakotasuna.

1.– Hornidura-kontratuen titularrek lau urtean behin egin berrikusi beharko dute instalazioa, eta lau urteko epea bukatzen den urte naturalaren barruan egin beharko dute.

2.– Gas enbasatua banatu edo merkaturatzen duen enpresak aurretiaz jakinarazi beharko dio instalazioaren titularrari edo erabiltzaileari instalazioa berrikusi behar duela nahitaez, eta argi eta garbi adierazi beharko dio berrikusketa egiteko epea noiz bukatzen den.

*21. artikulua.*– Gas enbasatuko instalazioen kontrolak egiten dituzten enpresa instalatzaileak.

1.– Enpresa instalatzaileren batek gas enbasatuko instalazioetan Dekretu honetan jasotako berrikusketak egiteko asmoa badu, era horretako jarduerak egiten hasi baino lehen, ezinbestez eskuratu behar du gasaren enpresa instalatzailearen ziurtagiria (ikusi maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan xedatutakoa), eta, horrez gain, dekretu hau garatzen duten xedapenetan ezartzen diren bitartekoak eta baliabide teknikoak dituela egiaztatu beharko du.

2.– Era berean, berrikusketa egiten duen enpresa instalatzaileak berrikusketa-aktaren kopia bat bidali beharko dio gasa banatzen edo merkaturatzen duen enpresari eta beste kopia bat gordeko du artxiboan, harik erregelamendu bidez ezartzen den epea bukatu arte.

*22. artikulua.*– Hornidura eteteko prozedura, gas enbasatuko instalazioak ez berrikusteagatik.

1.– Berrikusketa ezin izan bada egin gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak esandako egunean, eta berdin dio zergatik ezin izan den egin, enpresak adierazi beharko dio titularrari hiru hilabeteko epea duela berrikusketa egiaztatzeko. Berrikusketa egiaztatzeko, titularrak Dekretu honetako 7. artikuluan aipatutako berrikusketa-akta aurkeztu beharko dio gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresari.

2.– Hiru hilabeteko epea bukatzen bada eta ez bada aktarik aurkeztu, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak berriro eskatuko dio titularrari akta aurkezteko, eta horretarako hilabeteko epea emango dio. Horrez gain, enpresak titularrari jakinaraziko dio epea bukatzen denean, horniketa eten egingo dela.

3.– Aurreko paragrafoan adierazitako epea ere bukatzen bada eta ez bada egiaztatu berrikusketa egin denik, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak eten egingo du hornidura, eta titularrak edo erabiltzaileak dauzkan botila edo ontziak kenduko ditu.

4.– Hornidura eten baino lehen edo eteten den unean bertan gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak hornidura eteteko erabakiaren berri eman behako dio titularrari edo erabiltzaileari.

*Artículo 20.*– Periodicidad de la revisión.

1.– Esta revisión deberá realizarse por todos los titulares de contratos de suministro, cada 4 años. La revisión deberá realizarse dentro del año natural de vencimiento de este periodo.

2.– Las empresas distribuidoras o comercializadoras de gas envasado deberán recordar a los usuarios o titulares de estas instalaciones, con antelación suficiente, la obligación de realizar la revisión, con expresa indicación de la fecha de vencimiento del plazo para su realización.

*Artículo 21.*– Empresas instaladoras que realicen los controles en instalaciones de gas envasado.

1.– Las empresas instaladoras que pretendan realizar en instalaciones de gas envasado, la revisión a los que se refiere el presente Decreto, deberán, previamente al inicio de su actividad, disponer del certificado de empresa instaladora de gas, conforme a lo establecido en el Decreto 175/1994, de 17 de mayo y acreditar que disponen de los medios y recursos técnicos que se establezcan en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

2.– Así mismo, la empresa instaladora que realice la revisión, deberá remitir una copia del acta de revisión a la empresa comercializadora o distribuidora de gas y conservar otra copia en sus archivos durante el plazo que reglamentariamente se establezca.

*Artículo 22.*– Procedimiento de suspensión de suministro por no realización de la revisión en instalaciones de gas envasado.

1.– En el supuesto de que, cualquiera que sea la causa, la revisión no se haya realizado dentro del plazo previsto, la empresa distribuidora o comercializadora de gas, requerirá al titular para que, en el plazo de tres meses, acredite ante dicha empresa la realización de la revisión. Esta acreditación se efectuará mediante la presentación de acta de revisión a que se refiere el artículo 7 del presente Decreto.

2.– Transcurrido el referido plazo sin que se haya presentado dicha acta, la empresa distribuidora o comercializadora de gas procederá a la realización de un segundo requerimiento, concediendo el plazo de un mes y apercibiendo al titular o usuario de la instalación de que, transcurrido dicho plazo se procederá a la suspensión del suministro.

3.– Transcurrido el plazo referido en el punto anterior, sin que se acredite la realización de la revisión, la empresa distribuidora o comercializadora de gas procederá a la suspensión del suministro, debiendo retirar las botellas o envases de los que disponga el titular o usuario.

4.– Con carácter previo o en el mismo acto de suspensión de suministro, la empresa distribuidora o comercializadora deberá notificar al titular o usuario la decisión de cortar el suministro.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gasa banatu edo merkaturatzen duten enpresetan Dekretu honek arautzen dituen ikuskapenak egiten diharduen pertsonalak hiru urteko epea izango du, Dekretu hau argitaratzen denetik hasita, gas instalatzaile profesionalaren karneta lortzeko. Dekretu honetako 9. artikuluan dago xedatuta nolako karneta. Bestalde, ez zaie karnetik eskatuko, hiru urteko epea bukatu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira dekretu honen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, baldin eta dekretuan xedatutakoarekin kontrajarrita badaude.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Industria gaietan eskumenak dituen sailburuari dekretu hau exekutatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio.

2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hiru hilabetera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko urtarrilaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El personal de las empresas distribuidoras o comercializadoras, que se dedique a la realización de las inspecciones reguladas en el presente Decreto, dispondrá del plazo de tres años contado desde la publicación de este Decreto, para la obtención del carné profesional de instalador de gas, en los términos previstos en el artículo 9 del mismo Decreto, no siéndoles exigible este requisito hasta transcurrido el referido plazo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango contradigan lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

1.– Se faculta al Consejero competente en materia de industria, para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la ejecución y aplicación del presente Decreto.

2.– El presente Decreto entrará en vigor a los 3 meses de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.